

## Trinidad Urtasun, Bertsolaria (1894-1978)

*Conocí a Trini Urtasun, anciano y enfermo, antes de que cumpliera los ochenta años. Falto ya de reflejos, no afloraba a sus labios el verso fácil y ocurrente que le creó la buena imagen de bertsolari con picante, en sus mejores tiempos.*

*Sentado siempre en la salita de un sexto piso, en Carlos III, no lejos del ostentoso Monumento de los Caídos, se limitaba a callar o con gesto hierático, casi impasible, rimaba de vez en cuando el saludo del amigo o el cumplido de circunstancias, a caballo entre su vasco y el castellano.*

*Nació en la casa Beltranea, de Irurita, el 24 de abril de 1894. Fue panadero, alternando el trabajo de obrador con el reparto por pueblos y cáseríos. Contrajo matrimonio con la autora del artículo que presentamos, el día 22 de julio de 1931.*

*Se ha perdido la mayor parte de la producción literaria de este bardo popular. En el número 97 de la colección Auspoa, «Bidasoa aldeko bost bertsolari», cinco bertsolaris de la zona del Bidasoa, recoge el P. Zavala media docena de composiciones suyas. Es todo lo que queda por ahora. Su propia esposa confiesa que destruyó originales por considerarlos ofensivos a la reputación de algunas muchachas.*

*Más conocido es el aspecto anecdótico de sus ocurrencias que, en ocasiones, le ayudaron a superar algunas dificultades. En cierta ocasión tuvo un pequeño accidente con la camioneta del reparto. Al iniciarse el interrogatorio para el atestado, pidió la libreta a los guardias y resumió así lo ocurrido:*

*«Al regresar de Errazu  
Trini con su camioneta  
por mirar a una chica  
se ha metido en la cuneta.»*

*Les hizo gracia la salida y no le molestaron para nada.*

*Urtasun falleció en Mezquiriz el verano pasado, concretamente, el 29 de julio de 1978. Publicamos esta pequeña semblanza redactada por Perpetua Saragüeta en vida de su esposo. El texto figura en el original meca-*

*nografiado del libro «Nere Oroimenak», con anotaciones de otros manuscritos que ella me ha proporcionado.*

*Ella fue una de las primeras mujeres que obtuvo en Navarra el carnet de conducir. Entre los seudónimos que utilizó en sus escritos hemos constatado el de «Mendigibel», además de los ya reseñados «Aritz» y «Txorrondo». Lo hacía por pasar desapercibida ente los lectores.*

J. M. S.

Goiz eder batez juan gine iruak, ama, anaia gaztena eta ni Arizkungo errira, amain lengusina batengana alargun gelditu berria. Amairu urtez iduki zue bere gizona erbaldua, itsua eta ergela, eta denbora ortan ez gindue ikusi. Amatxi zenak bai, zerengatik bere aizpa baten alaba zen izeba ori. Beti etxean egoteko lana zue eta orrengatik sal eroste pixka bat izaten zue bere etxean, eta gañera gosari, bazkari eta afaltzera ematen zakote bere etxera juaten zen guziari; aketa edo kafea, gañera edariak ere bai.

Aitari erran zio nola ez ginen juaten batre, osaba zenain mezetan egon zelaik. Amak idatzi zio, zuen umealdiaikin etxetik etzela aise ateratzia, eta albazue juain zela egun bakar batzuk beraikin egotera. Izebak erran zio: «Bai zato, baño zato zeure alaba zaarrenaikin eta seme tikienaikin.»

Amak nai zue len baño len egin juate ori. Niri kosta zitzaide anitz, zerengatik niri paratzen zaidelaik gauza pisu bat ez juanaia, Jinkoak daki bakarrik zer kostazen zaiden etxetik ateratzia; sartzen zaide beldur aundi bat zerbait gaizki eldu zaidela. Iakin izen banu dena ain segur enitze etxetik aterako...

Nere ama anaiakin juan zire asteain buruan, eta nik gelditzeko lana izan nue zerengatik bi besta izan zire aste artan, eta lan anitz zaelako izebak. Jaungoikuak ala naizue. Biramonean igandea ze eta goizeko mezara juan gine, eta atera zelaik mezatik erori ze eta besoa edo ukeraia autsi zue. Lau bortz ilabete egin zue bere ukeraia autsiaikin. Orduen gelditu ze lan aski neretako, erosi, prestatu eta eman iatera denei; saldu eta erosi juaten zirenei, dena izebain altzinean.

## SENARGAIA

Nik ez nuen niorekin itzegiten tenore ortan, eskulanean nindago eta ez nuen nior ezagutzen. Bein gau batez amarrak inguruan, gizon guziak beren etxetara igorri onduan, deitu zute atean nere aitak iotzen zuen bezala. Izebak edeki zue ataria gisa artan io zuelkoz. Io zuena zen, gaur nere senarra dena;

ogeite amazazpi urte zituen, baño iakin banu orduen ala izan bearra zela bira-monean berean juain nitze etxera.

Ez nue batre aderretsi lemexien; etze deusere nere gogokoa. Amar egunen buruan etorri ze ogiaikin eta erran zire izan nai zuela nik izen bear nituen ume guzien aita eta alako gauza anitz. Irri egin eta utzi nue.

Oraño ez zue deus erdietsi. Ola juan zen eta ilabete bat, gutiz gora bera, egontze etortzeko eta ni ez nitze oroitu beraz deus ere. Beti gauza berekin eta ni ain otz.

Azkenian erran zire: «Ez; orain etzazula erran ez bai eta ezetzik. La-guntzaneko Ama Birjiñari (Perpetu Socorro, erderaz) eginzazu bedratziurren bat eta gero errain direzu gauza bat edo bertze. Oraikoz ez dut geiagorik nai.

Ilabete baten buruan etorri ze eta galdetu zire bedratziurrena egin nuen edo ez. Irri egin eta erran nion ez nuela liburuik ere egiteko. Orduan atera zue liburu xar bat sakelatik eta eman zire.

Gero etze etorri bi illabetez eta iduritzen zitzaide sobera irri egin nuela aren kostura. Deus erran gabe, begira nindego ia langilea eta kristau ona zen. Gero ezagutu nue otoitz egilea zela, bere gurasoak maite zituela. Itz zikinek kalte egiten ziote, ez nue ezagutu bertsolari ona zela.

Egun batez eremanazi zire bere aita eta amak ezagutzera. Orduan ikusi nue bere ama elbarritua zela. Ereman zire Iruritako erretorea ezagutzera, eta berak erran zire lur bat batre lan egina, lar guziak berekin, ori zela; baño lur ona. Lana egin beartzela eta txintxo txintxo on anitz aterako nukela be-regandik.

Ni aski lanez asia nitze neure aite eta amarekin aurtzaroan; kosta zen nere naia biurtzia lan ortara baño, burua aski niasi ondoan, erran nio baietz eta orduan nai zue segido ezagutu nere aita eta ama.

Ni juan nitze neure etxera eta berriz etorri Iruñara, lenago nere eritasun guzia ezagutu zuen sendagilleaingana, odola eta gernua aztertu eta ongi ikusi nola nindegon deusetara pasatu gabe. Egun batzuren buruan etorri ze Iruñara nai zuelakoz nere aita eta ama ezagutu. Sendagilleak erran zigu aski ongi nitzela ni, eta neregatik ez ginduela makurrik izein.

Atsaldean juan gine Mezkitritze eta ama ze etxean. Asi zire ezagutzen elkar, eta nere orduko gizongaia asi ze Txirritain bertso batzuk abesten:

«Bagindazin, bagindazin biok gozo-gozo,  
Ezkontzeko mandatu egin diot atzo.  
Ama preparatu zait asarrez betia,  
Lemexiko oiua, zenbat dek dotia.  
Ainbertze kostatuko alaba maitia  
Lastima izango lukek iri emaitia.»

## PERPETUA SARAGÜETA

Geiago bazide baño atzendu zaizkit. Nere amak irri alde bat egin zue eta erran zire: «Ze traste zarra dagon! Etzue erran gaisto zela, baizik irri inazteko balio zuela.

Erran zio bestak urbil zirela eta etorri zeikela bestetara. Uztaillaren amarrean asten zire, eta etorri zen. Erran nekolaik baietz, gutieneik etzen ergeldu.

### EZKONTZA

Baño bestetan egin zire akometazio txar bat. Atera ze karrikera, baka-rrik; juan ze erriko apezangana nik iakin gabe eta erran zio nere gizongaia zela, nerekin ezkondu bear zuela eta len baño lenago nai zuela egin. Baño beldur zela nik ez nuela ain zalui naiko.

Ederki ala itz egin onduan etorri ze, eta errantzire: «Iaketa emen na-gon guazen biar goizean apezangana.»

Juan gine eta segido erran zire apezak: «Ilabete onen ogeite bian ez-kontzaizkete.»

Ni arriturik pixket, asarratu nitze eta erran nue: «Zeeer! Ogeite bian? Badugu asti eldu den udaberrirraño.»

«Bai, egun ederra da, eta etzate aurak denbora joatera uzteko.

Nik erran nion: «Dagonilain iruan nere urte betetekoa da; utzi dezagun orduko.» Baño ez nue erdietsi.

«Gizajoak andrea nai du, erran zire, eta andrea bear du; zertako iduki bear duzu bearretan?

Ezta amabortz egunez ere etzire utzi gibelatzera nere urtebetetzear egiteatik. Nik arropa xurialde bat erosi nue baño ez nue dena brodatu ez-kondu baño len; gero egin nitue erdiak baño geago. Soinekoak egin ziguzte ogeite bieko, eraztunek erosi ginduze eta bear gauza geienak; baño sobera laster geurendako.

Neure aitan aitari neuronek erran nio ezkontzen nitzela Iruritako mutil batekin, eta erran zire: «Neska! Urrunera eltzeak urrezkoak tun, allegatu ta lurrezkoak!» Ongi gogoan iduki dut neure denboran esaera zar au.

Gure ezkontzeko paperak irakurri zire emeretzian. Atsaldean mutilek artu zute erriko ostatuan beren amena: ogia, ardoa, aketa edo kafia, bertze edari batzuekin. Andregaiain aitak saritzen du; aspaldiko oitura da. Gero gabas mutilek abesten ziote berek egin abestiak andre gaiain ooretan.

Nik astelenean eta asteartean artu nitue eskutitz batzuk batre izenpetu gabe. Nere gizongaiai lurpean paratutzen zute, niri goratuz; baño beti uste izen dut nik botaikeko kalabaza aundi aien azitik atera zirela bi eskutitzak.



Trinidad Urtasun, baztango bertsolaria (1894-1978)



## TRINIDAD URTASUN, BERTSOLARIA (1894-1978)

Ezkundu gine mila bederatzi egun eta ogeita amekan uztaillearen ogeita bian. Iruritatik etorri zire amarretako, gizongaia bere arreba eta lengusu batekin, eta bi txistulari, Olaetxea anaiak, arront adiskideak. Gizongaiain gurasoak etzire ongi niorat ateratzeko.

Etzetik elizara txistu soñuan juan gine eta soñu berean sartu gine elizan. Beterik zego eliza. Nik anitz aide izan dut beti baño, gañera, etxe guzietatik baze jendea elizan. Batzuetatik denak.

Arront itzaldi ederra egin zigu Mezkirizko apezak. Tenore ederra zen ortarako: udaberri artan bota zute Españatik kampa Jesusen Lagundia eta erre zuzte bakartegi edo lekaretxeak, ez denak baño bai geienak edo nai baño geiago. Senar emazteak asi zire berexten, egunorokoek ala ziote. Gauzak aski gaizki zeude, baño eskualdun errietan etzen ageri deusere. Esan zigu indar aundia bear ginduela gaitzai irabazteko.

Eliza besta ederra izan ze. Elizatik atera eta txistu soñuan karrika dantzan juan gine etxera, baño bidean gelditzen zigute nere aitain sortu etxean, aitetxinean, amatxiñan, denetan gelditu eta goxogarriak ardo on zerbaitekin atera zute denentzat. Nik egundano ez nue artu eta eta orduan ere ez. Neure etxean artu nue beti bezala aketa esne xorta batekin, eta arrazi niote nai zuten guziei.

Aita ta aitetxikin juan gine Orreagara besarkadat lore ederrekin zeruko Amarentzat, ematera eskerrak eta eskatzera bear ginduen guzia.

Etorri ginelaik Orreagatik erran zire neure amak: «Zuek an zinetelaik etorri da Jenaro Larrayoz, bere biribil aundiarekin ekarri du zaku irine egun kilokoa. Eman diot bortz egun peztakoa saritzeko eta etzue itzultzekoik; orduan ez nue bertzeik eta zure senarrak utzi dituen iruetan ogei eta bortz peztak eman dizkiot.

Bai! erran nio. Ongi dago, ongi; agotza irine egin da!

Ni sortu nitzelaik nere aita erran zue neretako «zaku bat agotz», ama-txiri galdin ziolaik mutiko ala nexka nitzen. Irri ederra egin nuen.

### BERTSOLARIA

Nere senarra bertsolaria ze eta orai ere, bere gaixotasun guziaikin aski aise bertsoaikin ateratzen da. Io zute bide edo iru aldiz bertsolaria zelakoz.

Bein batez Erratzun aigine ogi saltzen. Iru gizonak gelditu zigute, eta galdetu zakote nere senarrai. Zu zera Trinidad Urtasun?

Bai jauna, ala naiz.

Zu zera nazionalista? (dena erderaz)

Bai jauna, ala naiz.

## PERPETUA SARAGÜETA

Eta zuk zer uste duzu orrekin?

«Joño! Amar al nación!» baño motela bezala.

Eta orduan erran zio batak bertzeari: Burgostik iortzen digute ala gizonak artzera?

Ala jua gine etxera afera guziak egin ondoan. Olako koropilo ederrak berexi ditugu, baño nere senarra arront gaizki paratzen ze; ertzetako berotasunaikin berrogei egun seurik egoten ze leioak ertzirik, argi pixkat sartu gabe bere gelan.

Nere aita maite zue nere senarra, baño baztandarrik ez. Erraten zue: «Baztandar tuku-tuku, kolkoan mile marrakuku.» Ezkondu ginelaik bere paretan irakurri nitue bertso ain zakarrak neskatzendako eta erran nako:

Nahi zinuke zure alabendako norbaitek ori egitea? Erre egin nitue. Nik ez nue maite alako gauzaik eta ez nue utzi ere olakoik egitera.

Erran zirete bein: Iruritako neskatzai etzagote ongi jua, zu emengo mutil batekin azkontzea!

«Nere erriko mutilei bezala! erran nion nik. An ere gaizki artzen dute neskata bat edo mutil bat kanpora juaten badire.»

Bein batez paratu zitue bi banabarra dilinden, eta erran zioten 36ean, zer erran nahi zuen arrek. Irakurri zak! Biba Nabarra! (Banabarra, alubia da Baztango euskeran.

Oraño bere eritasun aundiarekin eta guzie, ez balin badago arront moteldua, errakozu. «Zer ari zera Trini?» Eta berak: «Emen, ezin bizi eta ezin fini.»

Bertze batzutan errain du: «Emen nago il alzineko gaitzaikin.»

Anitz aldiz egon da anka eskuñe arront azi, eta beltz beltza egine. Sendagilleak: «Au dena adineingatik da.»

Ez, jauna, ez! errantzio Trinik. Bi anak adin berekoak dire.

Zenbat aldiz bertze bertsolariekin aitzen ze bertsotan! Bein batez entzun nitue iruetan ogeita lau. Azkenean bera gelditu ze bakarrik.

Bere erbaltasun guziaikin anitz aldiz bertsotan aitzen da. Baño mingaña moteltzen zaio anitz. Erraten du. «Zertara etortzen gara! Ezin ikusi, ezin ibili, ezin aitu, ezin itzeguin, ezin mogitu.»

Baditu lauetan ogeita iru urte.

Perpetua SARAGÜETA (1977)